

ximple!



TOKI MAPAREN ERREFORMA AURRERA DOA

Nafarroako Toki Administrazioako erreformak, Tokiko Maparen Erreforma deiturikoak, aurrera darrai, bi urte iraun duen partaidetza prozesua bukatu ondoren. Parlamentura eraman aurretiko azken urratsak ematen ari da orain. Bertan eztabaidatu eta bozkatuko da.

Pasa den maiatzaren 21ean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari igorri zion toki maparen erreformaren inguruko aurreproiektua. Federazioaren barnean aztertu eta eztabaidatu ondoren, pasa den ekainaren 22an egindako bilzar berezian erabaki zen oniritzia ematea Gobernuak aurkeztutako proposamenari. Proposamenak aldeko 148 boto (Agoizko udaleko aldeko botoa barne), kontrako 81 eta 11 abstentzio jaso zituen.

Federazioak Nafarroako Gobernuarekin izan duen eztabaidaren eta negoziazioaren fruitua da proiektua, eta, ondorioz, aurreproiektuak

jasotzen ditu entitateek partaidetza prozesuaren bitartean egin zituzten proposamen asko.

Federazioak oniritzia eman badio ere, oraindik gelditzen diren desadostasunen (NUKferen azken txostenean 8 adierazita daude) inguruan negoziatzen jarraitzeko konpromisoa hartu du Gobernuarekin zein parlamentuko taldeekin. Helburua Parlamentuan bozkatzeko momentua ailegatu arte fintzen joatea da.

Behin proposamenak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren oniritzia jaso eta Parlamentuan aurkeztuta, talde politikoak emendakinak aurkeztu eta testua aldatzen joan ahalko dira. Proposamenaren berri emanen dizuegu, behin betiko testua erabakitzen denean.

12 ESKUALDE

NAFARROAKO TOKI ERREFORMA



Arga	Udalerri kopurua	36
Bidasoa	POPULAZIOA 2017	361.574
Ega	Udalerri kopurua	21
	POPULAZIOA 2017	22.355
Erdi Aldea	Udalerri kopurua	66
	POPULAZIOA 2017	58.514
Eribera	Udalerri kopurua	19
	POPULAZIOA 2017	26.069
Eribera Garaia	Udalerri kopurua	19
	POPULAZIOA 2017	87.136
Izarbeibar-Novenera	Udalerri kopurua	8
	POPULAZIOA 2017	25.567
Izarbeibar-Novenera	Udalerri kopurua	20
	POPULAZIOA 2017	12.967
Larraun-Leizaldea	Udalerri kopurua	10
	POPULAZIOA 2017	8.569
Pirinio	Udalerri kopurua	30
	POPULAZIOA 2017	5.204
Pirinioaurea	Udalerri kopurua	12
	POPULAZIOA 2017	5.539
Sakana	Udalerri kopurua	15
	POPULAZIOA 2017	20.185
Zangozako Eskualdea	Udalerri kopurua	16
	POPULAZIOA 2017	9.555
Total Udalerri kopurua		272
Total POPULAZIOA 2017		643.234

AGOITZ NAFARROAKO GOBERNUKO ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN BOLTSAN SARTU DA

Agoizko hiribildua Nafarroako Gobernuko alokairuen poltsan sartu den 15. udalerrian bihurtu da, Miguel Laparrak, Eskubide Sozialen lehendakariordeak, eta Unai Lakok, alkateak, «Alokairu-Poltsa» programarekin herriko atxikimendu hitzarmen bat sinatu eta gero.

Hitzarmenaren lehen eginkizuna «herriko biztanleen etxebizitzetara sarrera hobetzea», eta beste lau urterako luza daitekeen lau urteko iraunaldia du.

Agoizko udalbatzak «hirian bizi diren biztanleei hurbiltasuna eta inguruko ezagutza eskainiko die modu egokian informatu ahal izateko programaren funtzionamenduaren inguruan eta gestioa azkartzeko». Nasuvinsa sozietate publikoak, Eskubide Sozialen Departamentuaren menpekoak, indarrean dagoen araudiaren inguruko prestakuntza eskainiko dio udaleko langileriarri, dokumen-

tazioa, liburuxkak eta beharrezkoak diren informazio euskarriak.

Nasuvinsak, Alokairu-Poltsaren kudeatzaileak, bere etxebizitza hutsa ekartzen duten biztanleentzat sustagarri batzuk eskainiko ditu: etxebizitza behar bezala bueltatzea, arrisku aniztetarako seguru baten kontratazioa (edukitzailea), etxean gertatu ahalko ziren hondamenak berdintzen dituen eta lehenengo errentaria sartzen den unetik errenta ziurtatzea eta garaiz kobratzea.

Halaber, Nafarroako Gobernuak, Eskubide Sozialen Departamentuaren bitartez, errentan egongo diren familiak diruz lagunduko ditu beraien diru-sarreraren eta familia-unitatearen arabera, etxeko errentaren % 25, 50, 75 edo 90-a.

Etxebizitzara sarrera soziala eta etxe hutsen merkatuan jartzea



Agoizko Udala | Ayuntamiento de Aoiz

14. zenb. | nº 14

2018ko uztaila

ZERBITZUAK | SERVICIOS

Udaletxea | Ayuntamiento

948 33 60 05

Euskara Zerbitzua | Servicio de Euskera

948 33 65 65

Kultur Etxea | Casa de Cultura

948 33 66 90

Cederna Garalar

948 33 63 37

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Servicio Social de Base

948 33 40 95

Liburutegia | Biblioteca

948 33 64 53

San Migel Ikastetxea eta Institutua |

Colegio e Instituto San Miguel

948 33 63 09

Bisitaldi gidatua Elizara | Visitas guiadas a Iglesia

637 44 81 07

Dya

948 33 60 65

Suhiltzaile Boluntarioak | Bomberos Voluntarios

948 33 65 00

Udal Pilotalekua | Frontón Municipal

948 33 61 64

Kirol Gunea | Complejo Deportivo


948 33 67 06

AURKIBIDEA

- TOKI MAPAREN ERREFORMA AURRERA DOA
AGOITZ NAFARROAKO GOBERNUKO ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN BOLTSAN SARTU DA
- MIGUEL LAPARRA, ERREFUXIATUTAKO FAMILIEKIN
ASPACEK BIRZIKLAPENA EGITEKO PABILIOIA ESTREINATU DU
ENPLEGUAREN ALDEKO APOSTUAREKIN JARRAITZEN DUGU
- KONTRIBUZIO ZERGA EGUNERATUTA
MUEVE AOIZ, MUGITU AGOITZ
- AGOITZ ERE GELDITU ZEN MARTXOAREN 8AN
AGOIZKO UDALAREN ADIERAZPENA "LA MANADA"REN
SENTENTZIAREN EPAITZA DELA ETA
EMAKUMEAREN EGUNA OSPATZEKO EKITALDIK
- ITOITZEN OROIMENAK BADU LEKUA AGOITZEN
UDALA, "ALTSASU AUZIA" DEITUTAKO EPAIAREN AURKA
- IRACHE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEAK AURRETIKO ZITA EZARRI DU
IZAGABUS ZERBITZUAK, 20 URTE
AGOIZKO ARGIEEN BERRIZTATZEKO AGIRIAK
ONETSIK
- ATEZ ATEKO LANDARE ETA BELAR HONDARRAREN BILKETA
KONPOSTA EGITEKO GUNE BERRIA
GURE INGURUA ZAITZEN
- IRATI HHS MANKOMUNITATEA, HONDAKINEN FORU LEGEAREN ALDE
BIRZIKLAPENAREN ASTEA OSPATUTA
- 2018KO ZUHAITZAREN EGUNA
ITOIZKO URTEGIAN BISITA GIDATUAK EGINEN DIRA ETA IBILGAILUAK BERTARAINO
AILEGATU AHALKO DIRA
EUSKARAREN EGUNA 2018
- EUSKARALDIAREN AURKEZPENA
KONTAKETA LABURREN LEHIAKETAREN XII. EDIZIOKO SARI BANAKETEN EKITALDIA
JAIETAKO PROGRAMARI, AZKEN UKITUAK EMATEN
- KULTUR BALANTZEA
- ERROMERIA SAN ROMANERA, HISTORIA ETA OHITURA
- FRANCISCO YNDURÁIN ADINEKOENTZAKO UNIBERTSITATEAK, 20 URTE AURTEN
BIANAKO PRINTZEA INSTITUZIOAK ANTXIETARI BURUZKO UNITATE DIDAKTIKOA
ARGITARATU DU
MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN EMANALDIK
- AGOITZ BIHOTZ-OSASUNGARRIAREN ALDEI
KANPONDOARI BURUZKO BERRIAK
NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA ITZULIA AGOITZEN

ximple!

Oharra: Aldizkariko erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzorde guztietako zinegotziek osatzen dute eta udal teknikarien eta garapeneko agentearen laguntza dute. Horiek aukeratu eta idatziko dituzte zenbaki bakoitzean argitaratuko diren testuak.



Nafarroako Gobernuak hartutako egiturazko neurriak dira, eta lortu nahi duena hau da: «baliabideen kudeaketa iraunkorra erabili gabe daudenak berrerrabili eta, horrez gain, Nafarroako herrietako hiriaren erdialdeetan dinamizatze asmoak dituztenen bitartez».

Alokatzaileei dituzten sustapen-neurriez gain, beste hau gehitzen zaie, beste herri batzuekin onetsitako hitzarmenetan legez, Nafarroako Gobernuaren aldetik, alokairu sozialeko programara utziriko etxebizitzaren jabeen hiru hileko ordainketaren baliokidea den dirulaguntza zuzenaren emakida, baita beren konturako alokatzaileen zerga-sisteman hobekuntzak ere, honek 2018rako berrikuntzetako bat suposatzen du.

Aste batzuk barru bilera publiko bat ospatuko da interesdunei programaren xehetasunak azaltzeko, aurretiaz jakinaraziko da.

Modu horretan Agoitz alokairuko etxebizitzan sarrera programan sartu den 15. udalerrian bihurtu da Zarakastelu, apirilaren bukaeraren sartutakoa, Viana, Tafalla, Leitza, Burgi, Oibar, Bera, Beriozar, Burlata, Antsoain, Tuter, Barañain eta Baztanen atzetik.

MIGUEL LAPARRA, ERREFUXIATUTAKO FAMILIEKIN

Duela gutxi Agoitzera egindako bisitan, Miguel Laparra Nafarroako Gobernuko gizarte eskubideetako presidenteordeak bisitatu zituen Agoitzen errefuxiatuta dauden familia siriar eta venezuelarrak. Guztira 24 pertsona dira, 6 laguneko 4 familia Nasuvinsak Agoitzen dituen etxebizitzatan bizi direnak, Nafarroako Gurutze Gorriak kudeatzen duen harrera programa bati esker.

Kontseilariak familia horiekin partekatu zituen gaztelera eskolako

ASPACEK BIRZIKLAPENA EGITEKO PABILIOIA ESTREINATU DU

Miguel Laparra lehendakariordeak parte hartu zuen Agoitzen Aspacek etxeko tresna elektrikoak birziklitzeko duen pabilioi berriaren inaugurazio ekitaldian. Harekin batera egon zen Eva García Ingurune eta Lurralde Antolaketaren zuzendari orokorra. Enplegu Zentro Berezia Nafarroako Gobernuak diruz lagundutakoa da, eta bertan 60 pertsonak lan egiten dute. Instalazio berriek 2.000 metro koadro dituzte, hasierakoekin batera, hondar materialak antolatzeko mugimenduak egiteko leku gehiago eskaintzen dutenak. Pabilioiaren azalera orain dagoena bikoizteaz gain, egindakoak lanpostu gehiago sortzeko aukera emanen du.

Inaugurazio ekitaldian Laparra lehendakariordeak azpimarratu zuen Aspacek dituen 40 urte horietan zehar burmuin paralisia

ENPLEGUAREN ALDEKO APOSTUAREKIN JARRAITZEN DUGU

Berriki, hiru deialdiren bidez, Agoizko Udalak zazpi pertsona kontratatu ditu hainbat lanetarako. RIIS deituriko gizarteratze modalitatearen pean hiru langile arituko dira, lanaldi osoarekin, hamabi hilabetez. Enplegatu horiek D mailakoak dirak, eta Agoizko udalako zerbitzu anitzetako zereginen zerbitzura daude.

Horretaz gain, hiru langile gehiago kontratatzeko deialdia egin zuen udalak, interes orokorreko edo sozialeko obrak egiteko

une batzuk. Errefuxiatuek udaletxean ikasten ari dira gaztelera, herriko boluntarioekin. Egindako bisitan, Miguel Laparra jakin nahi izan zuen nola zeuden errefuxiatuak eta zer behar zituzten.

Modu berean, Unai Lako alkateak pozik agertu zen, herritarren erantzuna eta harreragatik, hala nola pertsona horiek egunerokotasunean izaten ari diren integrazioagatik.

edo antzeko gaitzak dituzten pertsonen gizarteratzearen alde egindako lana.



zerbitzuak emateko. Izangaiek langabeak izan behar ziren, eta sei hilabetez arituko dira.

Azken deialdia administrari laguntzaile lanpostua betetzeko egin zen, hautapen proba baten bidez. Urte bateko iraunaldia izanen du lanpostuak, eta haren zereginen artean daude udal administrazio zerbitzuei laguntza ematea.

KONTRIBUZIO ZERGA EGUNERATUTA

2017. urtean zehar Agoizko Udaletxeak balioztatze txostena eguneratu zuen, 14 urte egin gabe egonda, herriko ondasun higiezin guztien balioespen berriak zehazteko. Txostena bost urtetik behin eguneratuta izan behar da, beraz, Agoitzen atzerapen handia gertatu. Gainera, Nafarroako Gobernuak Toki Ogasunen Funtsen banaketa arautzen duen legean, honen bitartez toki-erakundeak finantzatzeko direnean, txostenak 2018an eguneratuta edukitzea behartzen du, Agoizko kasua izango dena.

Nafarroako Gobernuak balioespen berriak onartu eta, maiatza bitartean udaletxeko langileak, etxerik etxe ibili ziren, balioespen berri ematen ondasunen jabeen. Gainera, dokumentuak sinatu ahal izateko udaleko bulegoak irekita egon dira goizetan eta astearte eta ostegunetan arratsaldetan. Etxean egon ez direnei edo bulegoetara joan ez direnei gutunez jakinaraziko zaizkie balioespen berriak.

MUEVE AOIZ, MUGITU AGOITZ

"Mueve Aoiz-Mugitu Agoitz" Agoizko Udaleko Berdintasun Arloko ekimen berria da. Martxoan hasi zen, nazioarteko emakumearen egunaren kariatara. Kanpainaren helburua berdintasunezko eta erasorik gabeko Agoitz eraikitzea da, dantza eta musikaren bidez.

Esne Beltzaren "Ez da ezetz" abestian oinarrituta, Maite Gárrizek koreografia bat osatu zuen, flashmob bat egiteko. Irati Antzerki Taldeak herritar guztiei ezagutzera eman zien lana, martxoaren zortzia ospatzeko antolatu zen ekitaldietako batean.

Rut Etxartek eta Edurne Mañúk editatu zituzten koreografia ikasteko bideo tutorialak. Gainera, Kanpondoak hiru masterclass antolatu zituen, eta bertan adin eta sexu mota guztietako berrogeita bat lagunek parte hartu zuten. San Migel Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuak ere parte hartu nahi izan zuen ekimenean, eta Maika Jimenezek ikasteko saio batzuk antolatu zituen bertan.



Pasa den ekainaren 1ean, lehenengo sei hilekoan, udalak kontribuzioa igorri zuen prezio berriekin eta txostenarekin. Interes-tasa %0,26tik %0,21era jaitsi zen, nahiz eta, txostena hainbeste urtetan eguneratu gabe egon delako, ordaindu beharreko zenbatekoa ia-zkoa baino handiagoa izan.



Alfredo Leónek diseinatu du logotipoa eta kanpaina. Iniziatibaren anagramarekin kaleratutako zapiak, berriz, "Simple diseño & serigrafía" enpresak egin ditu.

Ekainean gauzatu zen ekimena. Merkatuko plaza kolorez eta jendez gainezka zegoen, mezu argi eta tinkoa zabaltzeko: "EZ da EZETZ". Ehun bat pertsonen eta Agoizko erraldoien konpartsa lau irudik gauzatu zuten flasmoba, Rut Etxartek, Edurne Mañúk eta Sonia Lambertok grabatzen zuten bitartean. Ikusteko, Angiluerreka Elkarteak jai-aurreko astean antolatzen duen film laburren lehiaketaraino itxaron behar dugu.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie inizatiba eder honetan aktiboki parte hartu duten pertsonen eta gizarte eta kulturaren arloko entitate guztiei. Halaber, adierazi nahi du erasorik gabeko eta berdintasunean oinarritutako Agoitz eraikitzearen aldeko apustua egin duelana, eta horretan buru belarri arituko duela.

AGOITZ ERE GELDITU ZEN MARTXOAREN 8AN

“Martxoaren 8a” batzordeak Emakumearen nazioarteko Egunaren kariatara mundu osoan antolatutako greba deialdiak arrakasta handia izan zuen Agoitzen. «Gelditzen bagara, mundua gelditzen da» lemapean antolatutako jardunaldia historikoa izan zen, eta Mendiburua plazan 260 bat lagun elkartu ziren, gaur egun arlo guztietan (lansarien arteko aldea, diskriminazioa, bortzikeria sexuala) dagoen desberdintasunarekin bukatu behar dela aldarrikatzeko.

Agoizko Udala grebaren alde egin zuen martxoko osoko bilkuran hartu zuen akordioaren bidez.



AGOIZKO UDALAREN ADIERAZPENA “LA MANADA”REN SENTENTZIAREN EPAITZA DELA ETA

2016ko Sanferminetan gertaturiko taldeko bortxaketa dela eta, behin Nafarroako Probintzia-azuzitegiaren sententziaren epaitza jakinda, Agoizko Udalak deklarazio instituzional bat onartu du, eta bertan biktima eta bere familiarekiko laguntza, maitasun eta solidartate osoa igortzen du.

Gainera, agoiztar udalbatzak sententziaren epaitzarekin desadostasuna erakutsi nahi du eta baita egintzaren kalifikazioarekin ere, sexu abusuaren delitu jarraitu bat bezala izendatu. Halaber, justizia eta edozein emakumeren askatasun osoa errebindikatzen duen herriko aldarrikapenarekin bat egiten du.

EMAKUMEAREN EGUNA OSPATZEKO EKITALDIAK

Agoizko udaleko berdintasun eta kultura arloek, aurreko urteetan egindako moduan, hainbat ekitaldi antolatu zituzten Nazioarteko Emakumearen Egunaren kariatara.

Joseba Eceolazak «Camino Oscoz y otras historias del 36» liburua aurkeztu zuen. Nafarroan frankistek hil zuten maistra bakarra izanik, bere kasua errepresioaren bortizkeriaren ikurra bilakatu da.

Giza mosaiko baten bidez emakumeak ordezkatzeko dituen ikur ezaguna marraztu zen Merkatuko plazan. Urteik urtera partaideak gehitzen ari den zita honetan 280 pertsona elkartu ziren aurtengoan. Irati Antzerki Taldeak «Mueve Aoiz-Mugitu Agoitz» flashmoba aurkeztu zuen Kultur Etxean. Eta gauean, ohiko afaria egin zen; Irati Taldeak girotu zuen afaria.

Ipuin kontalari saio bat ere egon zen. Araitz eta Tulipa istorioetako protagonisten bidez, nesken eta mutilen arteko berdintasuna garatzen duten ipuinetan barna murgiltzen gara, eta elkarri zor diogun errespetua eta injustiziaren aurka aritzeko ideiak nabarmentzen dira.



“La manada” taldeko kideak baldintzapean aske utzi zutela jakin ondoren, udalak erabakia errefuxatzeko mozio bat onetsi eta protesta egiteko elkarretaratzeko deialdia egin zuen.

Agoizko herriak ez du onartzen inolako eraso matxistik, eta udalak berresten du bere konpromisoa giza-elkarteekin, talde feministekin eta hiritarrek oro har lanean jarraitzeko, berdintasunaren alde, emakumeen eskubideen alde eta patriarkatuaren aldeko adierazpenen guztien kontra.

Izaga Mankomunitateak antolatutako risoterapia tailerrarekin bukatu ziren emakumearen egunaren inguruan antolatutako ekitaldi guztiak.



ITOITZEN OROIMENAK BADU LEKUA AGOITZEN

Agoizko Udala zorretan sentitzen zen Irati ibaiak urpean utzitako herrietako jendearekin. Sentimendu horri leial, izendapen ofiziala eman dio herriko plaza bati, eta dagoeneko Itoitz plaza deitzen da Kanpandoa auzoan Nafarroako Enplegu Zerbitzua dagoen plaza hori. Gainera, oroitzapenerako eta aldarrikapenerako txoko berri horretan urtegiaren inguruko gertaeren kronologia, urtegia egin bitartean osatutako zenbait abestiren letrak eta desagertutako herrien argazkiak biltzen dituen panela jarri da.


Inaugurazio ekitaldian Las Milas taldeak Iratiri abestu zion; Idoia Donazarrek, berriz, Olatz Zugastiren “Itoitz” abestia eskaini zuen; eta Aritz Ugaldek, azkenik, Fermin Balentziaren “Irati” interpretatu zuen. Horien guztien ahotsek hunkigarri bilakatu zuten ekitaldi xumea, Idoia Zabaltzak pentsatutako panela inauguratu aurretik. Bertan, kronologikoki jasota daude urtegiaren aurkako borrokan izandako gertaerak eta urtegia egin bitartean emandako protesta



eta bizipenak kontatzen dituzten garai hartan sortutako abestiak. Alfredo Leonek diseinatutako panel horren bidez (Txaro Minak eta Blanca Zazpek utzitako argazkiak ditu) atzera begiratu nahi izan da, urtegia eraikitzeke erabakia hartu zeneko momentutik (1985.ena) obrak hasi ziren (1993.ena) arte.

Zaharra zen Agoizko udalean etxea eta herria galtzarekin batera bizitzaren eta identitatearen alde garrantzitsu bat galdu zuten pertsonak gogoan hartzeko lekua edukitzeko ideia. Itoitz plaza izendapenak barne hartu nahi ditu urpean gelditutako eta kalteak pairatu zituzten herri guztiak: Orbaiz, Artozki, Ezkai, Munian eta Nagore; ahaztu gabe, noski, Agoitzek ere gogorki ordaindu zuela.

Agoitzek presente eduki nahi ditu herri horiek, hala nola lurra ren defentsan emandako borroka haren memoria eta oihartzuna. Itoitz plaza deitutako leku berri horren bidez ez da ahaztuko.



UDALA, “ALTSASU AUZIA” DEITUTAKO EPAIAREN AURKA

Pasa den apirilean 50.000 pertsona bildu ziren Nafarroako hiriburuan, Altsasuko gazteentzako epai justua aldarrikatzeko. Ekainaren 16an, berriz, 80.000 lagun inguru bildu ziren eman berriko epaiaren aurkako manifestazio historiko batean. Martxa normaltasunez garatu zen, ibilbide berria izan zuen (Sadarretik Askatasunaren plazara) eta une oro islatu zuen izandako prozesu judizialerikiko jendearen haserrea.

Oroitaraztea dago zortzi gazteek 2-13 urteko kartzela zigorra jaso dutela desordena publikoa eta erasoak egotzita. Altsasu Gurasoak, gazte horien gurasoak biltzen dituen entitateak, “mendekutat” hartu zuten epaia, “eman zitekeen zigorrik handiena” erabaki zue-

lako. Hala ere, gurasoek aitortu zuten lasaigarria izan zela haien izandako terrorismo delitutzat hartu ez izana, horrela hartuz gero, zigorrak 62 urte eta erdikoak izan litezkeelako.

Agoizko Udalak elkartasuna eta atxikimendua erakutsi die momentu guztietan atxilotutako familiei, eta bi manifestazioetan parte hartzeko gonbitea luzatu du. Gainera, udaleko osoko bilkurak berriki onetsi du agerpen instituzional bat, Auzitegi nazionalerako epaiarekin bat egiten ez duena, desordena publiko eta erasoengatik Altsasuko zortzi gazteei emandako zigorra proportzio gabea delakoan.



IRATI HHS MANKOMUNITATEA, HONDAKINEN FORU LEGEA ALDE

Hondakinen Foru Legea Nafarroako 2017-2022 Hondakinen Planaren (PRN) exijentzia da. Planak berak bere helburuak erdiesteko ezinbesteko tresnatzat hartzen du lege bat edukitzea. Kudeaketa-rako antolaketa neurriak eta hondakinak gutxitzeko tresna ekonomikoak kontuan hartuko ditu. Halaber, honako urrats hauek bultzatuko ditu: PREBENTZIOA, BERRERABILERA, BIRZIKLAPENA ETA hondakinen hierarkiaren BALORAZIOA, Europako arautegian eta Nafarroan berriki onetsitako planifikazioan aurrerikotako helburuak lortzeko.

Hondakinen Foru Legeak ezarriko dituen helburuetako bat etxeetan nahiz industrian sortutako Bio-hondakinen bilketa selektiboa orokortzearen sustapena izanen da; isuriak zigortuko dira.

IRATI HHS Mankomunitatea buru belarri ari da helburu horiek bete nahian. Konpostajea zabaldu nahi du herri guztietara, eta laguntza ematen die herritarrei helburua modu erraz, eroso eta eraginkor batez erdiesteko.

Mankomunitateak eskerrak eman nahi dizkie konpostaje egitearen aldeko kanpainak hasi zirenetik izena eman duten familia guztiei. Hala ere, uste du arloko arautegiak ezarritako helburuak oso urrun dituela oraindik, eta, horregatik, zeregin horrekin hasteko gonbidapena egin du, duela gutxi egindako publizitate kanpaina baten bidez.

BIRZIKLAPENAREN ASTEA OSPATUTA

Maiatzaren 17an birziklapenaren Mundu Eguna ospatzen da, eta data horren inguruan, eta gizarte hondakinak behar bezala erabiltzeko duen garrantziak kontzientziatzeko helburuarekin, klima-aldaketa ez laguntzeko, eta modu horretan ingurumena babesteko, Irati HHS Mankomunitateak birziklapen astea ospatu zuen programazio zabala eskainiz.

Kultur Etxeko hallean Izarbeibarko Mankomunitateak utzitako erakusketa «Ibaiko beste arrainak» hartu zuen. Hondakinak kudeatzeko duen garrantzia azpimarratzen du, eta nola buka dezaketen kutsatzen ibaiak lehenengo eta itsasoak gero.

Birziklapen tailer bat ere jarri zen Sareanek antolatutako "Lekuko Artisautzaren VI. Azoka" zegoen bitartean, eta beste behin Merkatu Plazan ospatua. Agoizko Eointegrak inguruko ikastetxeetako ikasleen bisitaldiak hartu zituen. Horrela, Eloko, Urrotzeko eta Agoizko txikienek aparailu elektriko eta elektronikoak hondakinak tratatzeko instalazio planta baten funtzionamendua eza-gutu zuten.

Eta astea bukatzeko "Konpostaren onurak gure baratzetan" hitzaldi interesgarri batekin eman zitzaion itxiera. Txostengileak, Ifrigo Lópezek, zehaztasun guztiarekin deskribatu zuen etxeko konpostontzien erabilerak suposatzen duenaz eta azpimarratu zuen zaborrak sortzen duen kutsaduraren inguruan kontzientziatzeak duen garrantzia, honen hondakinek iragazi baitaitezke mantu akuiferoetara eta landare eta begetalak kutsatu.

Informazio gehigarria edo zerbait argitu nahi baduzu, telefono hauetara (07:30-11:30 bitartean) deituta eska dezakezu: 609 667 233-948 33 62 17; edo, bestela, mezu bat idaztea duzu infocompost@rsuirati.es helbidera.



2018KO ZUHAITZAREN EGUNA

Pasa den martxoaren 29an izan zen Agoizko Zuhaitzaren Eguna. Aurreko asteetan egitea aurrikusita baldin bazegoen ere, eguraldia zela eta, bertan behera utzi behar izan zen, presako moduan izan bazen ere. Hala ere, jende asko animatu zen jardunaldian parte hartzera.

Udalaren iniziatibak ingurumenarekiko eta gizartetaren aldeko kontzientzia sustatu nahi du herritarren artean, eta, bereziki, gure herriko bizi kalitatea hobetzeko zuhaitzak landatzearen beharra. Klima aldaketari buruz gero eta gehiago hitz egiten den aldi honetan, zuhaitzek ematen dizkiguten onuren inguruan kontzientzia hartzeko garaia da.

Aurten Beraxitoxa parkea aukeratu zen. Duela bi urte ere, bertan landatu ziren zuhaitz batzuk. Udalaren asmoa da parke horretan itzal handiko eremua edukitzea, leku lasaia eta paseatzeko egokia baita. Gainera, Iratiko Bide berdearen inguruan dagoenez, ibiltzeko eskaintza handituko da geroa.

Zuhaitzaren Eguneko seigarren edizio honetan askaldegia bat jarri zen: egurrezko bi mahai eta bankuak, eta, haien inguruan, lizarrak,

ITOIZKO URTEGIAN BISITA GIDATUAK EGINEN DIRA ETA IBILGAILUAK BERTARAINO AILEGATU AHALKO DIRA

Itoizko urtegi sartzeari errealitate bilakatu da Agoizko Udalaren, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren, Cederna-Garalur eta Nafarroako Turismo Zerbitzuaren artean adostutako planaren ondorioz. Planak turismoa bultzatu nahi du urtegia baliatuz.

Plan horri esker, autoz edo autobusez sartu ahalgo da urtegi horma beraraino eta azpiegitura ezagutzeko bisitaldi gidatuak antolatuko dira. Herrian eta eskualdean dauden turismo baliabideen artean bat gehiago izan nahi du ekimenak. Horretarako, bi panel jarri dira, bat Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ordaindutakoa, obra hidraulikoaren inguruko informazioa ematen duena, eta

EUSKARAREN EGUNA 2018

Pasa diren apirilaren 27 eta 28an izan ziren Euskararen Eguna-ren kariatara antolatutako aktibitateak. Lehenengoa izan zen Toki Eder pilotalekuan egindako bertso-pelota saioa, zeinetan emakumeak izan ziren protagonista bakarrak. Lehia kirol mailakoa izan zen, baina kulturala ere; izan ere, pilotari bikote bakoitzak bazuen haren alde egiten zuen bertsolaria. Hauexek eta adierazten den moduan aritu ziren: Olatz Ruiz de Larramendi eta Patri Espinar (Amaia Agirrerren laguntzarekin), Eneritz Arrieta eta Maite Ruiz de Larramendiren (Ohiane Perea bertsolariarekin) aurka. Proposamen berritzaile horrek harrera ona izan zuen, bai bertaratutako



astigarrak eta urkiak. Irati HHS Mankomunitateak Agoizko konpost guneetan eginiko eta utzitako konpostea eta oinarria erabili zen.

San Migel ikastetxeak ere ospatu zuen Zuhaitzaren Eguna, eta, azken urteetan egin ohi den moduan, zuhaitz bat landatu zuten (urkia) eta monolito bat jarri zen aurten eskolan hasi diren haurren izenak jasotzen zituena. Ekitaldira joan ziren haur horien seme-ideak. Lerro hauek baliatu nahi ditugu iniziatiba polit honetan urtero parte hartzen duzuen horiei eskerrak emateko eta parte hartzen jarraitzeko gonbidapena egiteko.



beste bat udalak eginikoa, Agoitzen eta haren inguruan egiteko dauden aukerak eta herriak dituen zerbitzuak agertzen dituen: eliza bisitatzea, ibilbideak, karabanak aparkatzeko gunea.

Aipatutako planak urtegia bisitatzeko programa bat dauka: gainezkabidea eta galeriak bisitatzeko dira eta bideo bat jartzen da. Informazio hori eskura dago udalaren, EKH-ren eta Nafarroako Gobernuaren web-orrietan, eta bertan ere bisitak hartzeko zita eskatu daiteke. Bisitaldi konbinatua egiteko aukera dago: urtegia ikusi eta herriko alde zaharra eta San Migel eliza bisitatu.



EUSKARALDIAREN AURKEZPENEA



Pasa den apirilaren 20an, Agoitz eta eskualde osoko euskaltzaleak Aurelio León aretoan elkartu ziren Euskaraldiaren aurkezpenean. Euskararen sustapenean lan egiten duten erakundeek sustatutako iniziatiba da. Euskaraz aritzeko ariketa modura aurkeztu da, denbora zehatz eta mugatu batean (11 egun). Ariketarako, euskararen erabileraren aldetik

bereizitako bi profil zehaztu dira: ahobizi eta belarriprest. Ahobizi izanen dira egun horietan zehar euskaraz bakarrik erabiliko duten pertsonak, eta belarriprest, berriz, erabili ez baina haiei euskaraz zuzentzea eta egitea eskatzen dutenak.

Euskararen aldeko lehen ekimena da, euskararen eremu geografiko osoko gobernuen laguntza eta atxikimendua jaso dena. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingen da. Bileran lan-talde bat osatu zen, dagoeneko aurretiko lanekin hasi dena, proposamenak Agoitzen ahalik eta oihartzun handien izan dezan. Egingo al dugu proba?

KONTAKETA LABURREN LEHIAKETAREN XII. EDIZIOKO SARI BANAKETEN EKITALDIA

Agoitz Hiriko kontaketa laburren Lehiaketaren XII. Edizioak jendez gainezka zegoen Kultur Etxean ospatu zuen betiko sari banaketa. Ekitaldi oso alaia Pantxika Lamurrek (Ainhoa Juániz) umore onarekin eta maisutasunez gobernatuak, ikastaro eta ziklo ezberdinetako irabazleei banan-banan deituz, eskolako eta udaleko epaimahaiko kideen laguntza, etorkizuneko idazle hauei merezitako sariak eman zizkieten.

Ekitaldiak, gainera, balio izan zuen, sarituriko kontaketeekin argitaratutako liburua aurkezteko. Zorionak irabazleei eta XII. Lehiaketan parte hartu zuten guztiei.



JAIETAKO PROGRAMARI, AZKEN UKITUAK EMATEN

Gero eta hurbilago daude San Migelen ohorean antolatzen ditugun festak. Txupina jaurtiki eta ekitaldi mota anitza izanen duten bost egun handi hasiko dira. Baina eskaintza hori lortzeko beharrezkoa izan da aurretiko prestaketa lan handia egitea, gure herritarrei hoberena aukeratzeko (gure herriak gastatzeko duen aurrekontuak ematen duen aukeraren barnean) eztabaidak ematea.

Udalaren helburu nagusiak dira herrikoen iritzia ematea eta jai partehartzaileak antolatzea, herriko guztiek, adin guztietakoek, bertan lekua izan dezaten. Horretarako, Kulturgunea foroa bi aldiz elkartu da jaietako programa prestatzeko, ideiak jasotzeko eta txupinazorako proposamenak baloratzeko. Udaleko langileak maiz elkartu dira eta lan ordu asko eskaini dituzte, dena nahi den moduan atera dadin.

Prestaketa egun hauetan jaiak iragarriko duen kartela, jaietako programaren azalean agertuko dena, aukeratu da ere. Udal igerilekuan bozkatu ahal izan da epaimahaia hautatutako hiru aukeren artean. Guztietatik bozka gehien jaso dituen Alfredo León Mañúrena izan da. Zaharra da sari mota hauetan, eta oraingoan "Amagoia, Inamol, Rubén, Arantza, Mikel... y tú" izeneko kartelarekin irabazi du.

Jakiteko dago oraindik zeinek botako duen txupina. Modu berean, oraindik zehazteko gauza xeheak daude, jaietako engrana-jea abuztuaren 11n biratzen hasi eta 15 arte eten gabe jarraitzeko.

Jai zoriontsuak!



KULTUR BALANTZEA

MARTXOA: Emakumearen Eguren kariatara antolatutako ekitaldiek osatu dute Kultur Arloak martxoan zehar antolatutako ekitaldien ardatz nagusia.

«Emakumeak: sormen gai-sormen iturri» deitutako programaren barnean, artistek eta publikoak zenbait egunetan bat egin zuten Kultur Etxean, bertan antolatutako aktibitateetan parte hartu eta programazioak eskainitakoak disfrutatzeko: artea, bideoa, dantza, poesia eta musika. Herriko emakumeen dimentsio artistikoa erakustea helburu duen ekimen hau arrakastatsua izan zen, bai bildutako jende kopuruagatik, baita artisten inplikazioagatik ere. Erakusketa ikusgai egon zen martxoaren 17a arte, eta bisitariek ar-



tisten proposamenei haien ekarpenak egiteko aukera izan zuten. DBH-ko ikasleek «Sherk: el musical» antzezlan-musikal bat prestatu zuten, Irati Antzerki Taldearen laguntzarekin, ikas-bidaiarako dirua lortzeko asmoarekin. Kultur Etxean taularatu zen bi egunetan gainezka zegoen entzutegia. Zorionak, artistak!

Agoizko San Migel Abesbatzak ere Aste Santuko eliz musikako kontzertua eskaini zuen elizan.

Hilabetearen bukaeran, Aste Santuko oporren aurreko egunak, Euskararen Eguna ospatu zuen San Migel LH Ikastetxe eta DBH-ko institutuak.

Bilaketak «Mujeres, hijas del Rock and Roll y de mayo del 68» hitzaldia antolatu zuen, Charo Begué hizlari izan zuela. Horretaz gain, UMAFYren eguna ospatu zuen.

Azkenik, Kulturguneak bilkura izan zuen, Sanisidroetako eta abuztuko jaietako programazioa antolatzeko. Beharrezkoa da ekitaldiak denborarekin ixten joatea eta berriak proposatzea.

APIRILA: Aste Santuko oporraldiaren ondoren, berriz aktibatu zen apirilko kultur aktibitatea. Nabarmenezkoa da, arte eszenikoetan, Agoizko Dantzari Taldeak antolatutako «Erratzak Dantzan» ikuskizun berria, ikusle eta partaidetza handia izan zuena.

Liburuaren egunaren kariatara ere, zenbait aktibitate antolatu dira: ahozko

narrazio saioak San Migel ikastetxeko ikasleentzako, Mari Cruz Aquerretaren esku; «Consejo de Guerra. Injusticia Militar en Navarra, 1936-1939» Ricardo Urrizolaren liburuaren aurkezpena; eta Agoitz Hiria Narrazio Laburren Lehiaketaren XII. Edizioan lanak aurkezteko epea bukatu zen. Lehiaketan San Migel ikastetxeko lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleek parte hartu zuten.

Horrez gain, Kultur Etxeko Areto Nagusian, ikusgai egon zen «Navarrorum. Euskarari buruzko Nafarroako bi urteko dokumentuak» erakusketa interesgarria.

Musika presente egon da ere, Musika Eskolak ikastetxeko ikasleei eskaini zien kontzertu didaktikoarekin.

Aurten, Euskararen Eguna apirilera mugitu da, eta hileko azken asteburuan zenbait ekitaldi antolatu ziren, euskara protagonista zutela.

Hilea bukatzeko, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen Dánzalo Dantza Eskolaren eskutik: erakustaldi bat egin zuten pilotalekuan, publiko handia izan zuena.



Nabarmenezkoa da, aipatutakoaz gain, Harituk antolatutako hitzaldiak, jaioberriko ninientzako musika ardatza zutela eta eskolako jazarpena galaraztea helburua zutenak.

MAIATZA: Maiatza oso trinkoa izan da jarduera kulturaletan, San Isidro jaiekin txandakatuz, gainera. «Pequeños Artistas-Artista Txikiak» izan zen hilabete honetako lehenengo erakusketa proposamena, auzotar askok ikusitakoa bera. Gainera, ikastetxeko ikasle guztiek ere hurbildu egin ziren Kultur Etxea erakusketa honetaz gozatzera. Ordezkoa «2017-2018 kurtsokoek» eman zioten, han-





go zaharberitze, margo, arte plastikoak eta ehazieretan egindako lanekin.

Urtero bezala, nabarmendu behar da, Pirritx, Porrotx eta Marimotots «Borobilean» lanarekin etorri izana. Ikusle ugari Merkatu plaza gainezka jarri zuten ikuskizun jostalari honekin barre egiteko.

Pailazoez eman zioten hasiera San Isidororako egindako egitarau kultural eta jai-girokoari. Udaletxeak antolatutako ekitaldiak, zezenkoak, betiko sutzara eta txokolatearen jota, prozesioa, erraldoiak eta kalejira, besteak beste, Angiluerrekak eta Apymek antolatutako gehitu zitzaizkien.

Aurten, berrikuntza modura, festetako egutegian Nafarroako Dantza Garaikidearen Festibala (DNA) gehitu zen. Modu horretan frontoian eman ziren Laida Azkona eta Elena Lizaireren «Kirolak», Jesús Rubio Gamoren «Boloro» eta Martxel García eta Jon Lópezen «Errata Natural» emanaldiak, hainbat jendetza erakarri zutenak. Ikuskizun delikatuak, hurbila gure eguneroko esperientzietara eta gure lurraldera eta kalitate handikoa.

Musikak ere bere lekutxoak izan du. Tafallako Tubala Oxo Abesbatzak Nafarroako Abesbatzen Zikloaren barruan kontzertu bat eskaini zuen, Nafarroako abesbatzen Federazioak antolatzen duena; Mariano Garcia Bandak «Disneyko soinu-bandak» ikuski-

zunarekin, jendez gainezka zegoen Kultur Etxea gozarazi zuen, eta Agoizko eta Huarteko Musika Eskolako txistularien gelak txistu entzutea antolatu zuten.

Gainera hilabete honetan zehar Harituk antolaturiko hitzaldiak eta tailerrak egin dira. Haurrentzako musika, teknologia berrien arriskua eta seme eta alaben hezkuntza emozionala izan dira erabilitako gaietako batzuk.

Kulturgunea foroak maiatzari dagokion bilera ospatu zuen, bertan abuztuko jaiekin lotura duten gaiak jorratu ziren. Egitaraurako ekintzak zehazten ari dira, baita 2018ko txupinazioa nor botako duen jakiteko herri-bozketara eramango diren hautagaitzak baloratzen ere.



ERROMERIA SAN ROMANERA, HISTORIA ETA OHITURA

San Roman basilizara urtero maiatzaren lehenengo igandean egiten den ohiko erromeriak aurten berritasun bat gehitu zuen. Dantza taldeko kide batzuk, atzetik txistularien soinuak erabilia, agramondarren eta beaumontarren arteko bake sinatzea birsortu zuten. 1479ko irailean eszenatoki berean Magdalena erreginaordea han zegoela gertatu zen bezala.

Ehun bat pertsona inguruk, goiz eder batean, egin zuten Hiribildua eta basilizaren arteko ibilbidea, eta han erromeria bukaeran, Bilaketa gitarra taldearen laguntzarekin meza ospatu zen. Ekitaldia bukatzeko, eta bakea sinatu zeneko Pello Guerrak idatzitako testu bat irakurri, Agoizko Udalak hamaiketako bat eskaini zien gune historiko hartaraino hurbildu ziren auzotar guztiei, berriro ere «adiskidetasun dantza» baten lekuko izateko.

Halaber, Dani Saezi eta Luis Prietori eskerrak eman nahi dizkiegu ogi-mami gozo-gozoak egitearren eta udaleko langileei jai egun baten lanean aritzearren.



FRANCISCO YNDURÁIN ADINEKOENTZAKO UNIBERTSITATEAK, 20 URTE AURTEN

1998ko urrian amets bat, errealitate bilakatutako utopia bat hasi zen: Francisco Ynduráin Adinekoentzako Unibertsitatea.

Ekimena posible izan zen haren fundatzaileen izaera ekintzailea zela eta. Adinekoei ikasteko eta pertsonalki hezteko aukera emateko espazioa sortu nahi zuten, izan ere horietako askok gaztetan ezin izan zuten ikasi. Pertsona horiei esker Agoitz, Iruñea eta Lizarrako adineko askok trebatu, ezagupenetan sakondu eta ikasi dute denborarekin zabaltzen joan den ikasgai sorta aberats batean.

Baina izaera ekintzailea ez zen proiekturako beharrezko osagai bakarra. Iraunkortasuna ere eduki behar izan zuten, tamaina honetako asmoak aurkitu zituen oztupoak gainditzeko. Poliki-poliki egonkortzen eta handitzen joan zen: gero eta ikasle, ikasgai, irakasle eta egoitza gehiago izan ziren. Denek helburu komuna zuten, adinekoen zerbitzura jartzea, alegia.

20 urte hauetan, UMAFY adinekoentzako bilgune bilakatu da. Han, ikasteaz gain, bizitza eta esperientziak partekatzen dituzte.



Eta unibertsitatearen beste aurpegi hori da, zalantzarik gabe, unibertsitate hurbiltzen diren ikasleek jasotzen duten trebakuntza akademiko garrantzitsuena. Pertsona askok lagunak eta berotasuna aurkitzen dute.

Eta, bukatzeko, gogora ekarri nahi dugu Jean Cocteau nobelista frantziarrari egotzi zaion esaldia, UMAFY 20 urte hauetan egindako ibilbidea ongi islatzen duena: "ezinezkoa zela ez zekitenez... egin zuten".

BIANAKO PRINTZEA INSTITUZIOAK ANTXIETARI BURUZKO UNITATE DIDAKTIKOA ARGITARATU DU

Agoitz, Añorbe, Kaseda eta Tafallako udalek Juan Antxieta artista erromanistaren lana balioan jartzeko elkarren artean egin duten



apustuak urrats berria eman du irakaskuntzaren arloan. Izan ere, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Printzea Institutzioko Ondare Historikoko Zerbitzuak unitate didaktiko bat argitaratu du (CD-an). Tresna berri bat da, eskultorearen erretaula duten lau herrietako ikastetxeetan eta parrokiatan banatzeko, herri horietako ikasleek artista eta harren ingurune historiko eta soziala ezagutu ditzaten.

Unitatea Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago. Edukiaren barne daude, besteak beste, Juan Antxieta bera aurkeztea, lau erretaulen inguruko informazioa, eskultorearen ingurune historikoa, Errenazimendua eta bera lanean hain eragin handia izan zuen Migel Angelen lanarekiko konparazioa.

Bianako printzeak sareetan hedatuko du, doan jaitsi ahal izateko, inplikaturako entitate guztien helburua baita Antxieta lana ezagutzera ematea.

MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN EMANALDIK

Agoizko Udal Musika Eskolak aktibitate handia izan du ikasturteko hirugarren hiru hilabeteetan. Apirilean, azken urte hauetan egin ohi den moduan, Kultur Etxean egin zen San Migel ikastetxe publikoko ikasleei eskaintzen zaien kontzertu didaktikoa. Hauxe zen aurtengo kontzertuko leloa: "Reggeatona, neurritz ona".

Maiatzean, sanisidrotako kariatara, Musika Eskolako fanfarreak herrian barnako kalejira egin zuen. Hilabetea bukatzeko, Musika Eskolako txistu ikasleek, Uharteko eskolako ikasleekin trukean egiten ohi duen emanaldiak gainezka egin zuen Kultur Etxeko entzutegia.

Ekainean berri, eskola egutegiko azken bi ekitaldiak eskaini ziren. Lehenengoa "Tarán" musikala izan zen eta bigarrena ikasturte bukaerako kontzertua.



AGOITZ BIHOTZ-OSASUNGARRIAREN ALDE!

Diario de Navarra Fundazioak eta La Caixa gizarte ekintzak urtero antolatzen duten "erronka solidarioarekin" bat egin du Agoizko Udalak. Aurten, milio bat kilometro baino gehiago egitea proposatu digute. Eta dena arrazoi on eta osasungarri batengatik.

Udalak 1.000 euro erabiliko ditu udaletxeko fatxadan jarriko den desfibriladore bat erosteko. Zure laguntza behar dugu zenbateko hori handiagoa izan dadin eta gure kaleetan bi desfibriladore jarri ahal izateko. Horiekin eta kirol gunetan daudenekin gure herria inguru bihotz-osasungarri bilakatuko dugu.

Zer egin dezakezu laguntzeko? Oinez edo bizikletaz ibili, korrika edo igeriketa egin. Hori da gakoa. Datozen 18 asteotan udaleko proiektuari egoki diezazkiokezu zuen inguruan oinez edo korrikaz egiten dituzun kilometroak. Zenbat eta kilometro gehiago egin, orduan eta euro gehiago izanen ditugu gure proiektu bihotz-osasungarria aurrera ateratzeko.

Nola lagundu dezaket? Oso erraza da egitea. Aski duzu fdn.wefitter.com plataforman izena ematea, 'AoiZ cardiosaludable/Agoitz bihotz-osasungarria' izeneko xedea aukeratzea, 'Ayuntamientos activos' hautatzea eta zure sakelakora jaistea datozen 126 egunotan eginen duzun aktibitate fisikoa monitorizatuko duen aplikazioa.

3 hilabete ditugu arrazoi on batengatik ariketa egiteko. Parte hartu eta lagundu Agoitz bihotz-babestua egon dadin. Zure zain gaude! Eman urratsa eta utzi arrastoa!

Udaleko web-ean eta facebook-ean galde dezakezu edozein zailtza eta erronkaren behar bezalako informazioa jasotzeko.



KANPONDOARI BURUZKO BERRIAK

Larraitz Osések, Kanpondoa enpresa publikoko kudeatzaileak, bukatutzat eman du enpresarekiko lotura, kudeatze lanetan hilaibete batzuk eman ondoren. Denboraldi horretan lan handia izan du, lanaren zereginak ezagutzen eta instalazio, langile eta erabiltzaileekin lotutako erabakiak hartzen. Eskerrak eman nahi dizkiogu bere ahalegin eta inplikazioagatik, eta hurrengo lanean zorte on opa diogu. Orain, hutsik gelditu den lanpostua betetzeko hautaketa prozesuan murgilduta dago Kanpondoa. Denbora gutxi

barru horren inguruko erabakirik hartuko da eta egokiena izanen delakoan gaude. Ezagutzera emanen dugu, berririk izan bezain laster.

Bestalde, duela gutxi NAO-ean argitaratu da Kanpondoako zuzendaritza eta langileen arteko lan-hitzarmena. Enpresa sortu zenetik sinatutako hirugarren lan-hitzarmena da, eta bi urtez egonen da indarrean.

NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA ITZULIA AGOITZEN

Joan den igandean, maiatzaren 27an, «Vuelta Navarra Laboral Kutxa Nafarroako Itzuliaren» 57. Edizioaren bosgarren eta azken etaparen irteera gure herrian izan zen.

Goizeko lehen ordotik ezaugarri honetako txirrindularien ibilbide baten hasierak dakarren giroa gozatu ahal izan genuen, pedigree gehien duen itzuletako bat afizionatuen egutegian. Banan-banan, parte hartu zuten txirrindulari guztiak pasatu ziren Nafarroa Beherea Plazan jarrita zegoen sinadura kontroletik, eta Santa Ageda kalea eta Zabalea pasealekuan zehar parte hartu zuten 21 taldeen ibilgailu ofizialak kokatu ziren. Etorkizuneko izarrak harremanetan ibili ziren, 94 kilometro egin eta gero Iruñian bukatu zen,

azken etapa puntual honen irteera ikustera hurbildu zen afizionatu multzoarekin.

«Vuelta Navarra Laboral Kutxa Nafarroako Itzuliaren» edizio honetan 700 kilometro baino gehiagoko ibilbidea egin zen «Ciclismo en estado puro-Benetako Ziklismoa» eslogana erabiliz. Bost lehia egun protagonista ezberdinekin, baina ezaugarri komun batekin; bide-zoru ezberdinetan egindako proba oso zorrotza. Sterrato, lehen mailako mendateak, etapa lauak non klimatologiak bereak eta bi egin zituen, eta, batez ere, itzulia hartu zuten herri guztietan ikusleek eman zioten harrera ona; Tuter, Lodosa, Azagra, Sarriguren, Otsagabia, Agoitz eta Iruñea.

